

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE

**Hemen****Batzuen artean**ERLUJOSO BIZITZAREN
TEOLOGI INSTITUTUA

112 orrialde

Gizakion oinazea gogoeta-gai

Bizitza gogorra da. Batzuentzat gogorregia. Bizi den orok sufritzen du, gehiegi gainera. *Sufrimendua: Galdera eta bide* izenburua du Erlujoso Bizitzaren Teologi Institutuak plazaratzen duen *Hemen* aldizkariaren 15. zenbakiak. Bizitza egokitu zaigun munduan zoriona baino presenteago dagoen paimena du hizpide. Fededunen eta fedegabeen artean erlijioari buruzko hausnarketa gaurkotua eta anitza sustatu nahi du *Hemen*-ek, eta oinazearen gainean ere ikuspegi zabala eskaintzen du: Jexuxmari Mujikaren azterketa, gaurko kulturak sufrimenduari buruz dienez; Vicky Irigarai adituaren iradokizunak gaixoen zainketarako; Jose Luis Elortzaren Bibliaren ikuspegia; eta Jon Sobrinok, Javier Vitoriak eta Xabier Letek gogoan darabiltzatenak. ■

**Bortxazko lanak diktadura frankistan****Batzuen artean**GERONIMO DE UZTARIZ
INSTITUTUA, MEMORIAREN BIDEAK

224 orrialde

Frankismoak ezarritako esklabotzaren azterketak

Baldintzarik okerretenetan, frankisten makina bat fabrika eta meategitan lan egitera behartu zituzten 1936ko Gerra galdu zutenak. Zenbat burdinbide eta errepide ez ote zituzten beraiek egin. Esklabutza lan horren gainean egin diren ikerketen bilduma da Gerónimo de Uztáriz Institutuak eta Memoriaren Bideak elkarteak argitaratu duten *Bortxazko lanak diktadura frankistan* liburua. Obrak historia garaikidean izan diren antzeko bortxazko lanen inguruan dihardu; 1939tik aurrera Pirinioetan emandako esklabotzaz; preso zeuden emakumeek egindako lanaz; trenbideetako azpiegituren eraikuntzan ibili ziren presoen egoeraz; familiek jasan-dakoaz; eta epilogo gisa, *Bortxazko lanak oroimen kolektiboan* saila gaineratu dute. ■

Katixa Agirrek haurrei eskainia

Hamar urte baino gehiago dituzten neska-mutikoak izan ditu gogoan Katixa Agirrek *Seigarren atzamarra* kontakizuna idazterakoan. Haurrentzat idatzi duen lehen liburuko protagonista, ezkerreko eskuan sei hatz dituen Paula izeneko neskatila da. Pozik bizi da Paula bere berezitasun horrekin, jaio zenetik berekin izan duen seigarren hatz horrek botere magikoak ematen baitizkio, seigarren zentzu baten antzekoak. Horiei esker, besteen pentsamendua irakur dezake. Eta oso inportantea da besteek buruan zer darabilten jakitea, norberaren defentsa presatzeko. Paulak berak onartzen du, hala ere, batzuetan besteen pentsamendua irakurtzeak ez diola ezertarako balio. Beraz, botereak baditu, baino ez dute edozer gauzatarako balio. ■

**Seigarren atzamarra****Katixa Agirre**

ELKAR

70 orrialde

8,50 euro

Nelen margo lanen esanahia

Paperak koloreztatzea asko gustatzen zaion neskatila txiki bat du protagonista *Nelek nahi duena margotzen du* liburuxkak. Ben Kuipersek (Herbehereak, 1944) —besteak beste telebistako *Sesamo auzoa* saiorako gidoi askoren egilea— bost urtetik aurrerako haurrentzat idatzi du. Edozein unetan ikus daiteke Nele margotzen, Martin jakinminez begira daukan bitartean. Batzuetan berdea, besteetan gorria, hurrengoan beltza erabiltzen ditu Nelek koloreztatzeke. Egindakoa polita iruditzen zaion galdetzen dionean, Martinek askotan ez daki zer erantzun, ez baitu margotutakoa ulertzen. Orduan Nelek harro azaltzen dio egindakoaren esanahia. Batzuetan, berdea, Nele lo dagoenean ohean estaltzen duen edredoia izango da; baina hurrengoan, belarra ere izan daiteke. ■

**Nelek nahi duena margotzen du****Ben Kuipers.****Yvonne Jagtenberg**

IBAIZABAL

30 orrialde

8,40 euro



Joanes
(itxaropenaren semea)

Alaitz Olaizola

EUSKALTZAINDIA,
BBK FUNDAZIOA
84 orrialde / 5 euro

Toribio Alzaga antzerki saria

Euskaltzaindiak eta BBK Fundazioak urtero antolatu ohi duten Toribio Alzaga antzerki saria Alaitz Olaizola Bordak eskuratu zuen iaz pertsonaia berezi baten inguruan idatzitako *Joanes (itxaropenaren semea)* izeneko lanarekin. Inguratzen duen haur, gazte eta gizon-emakumeengandik guztiz bestelakoa egiten duen pentsamoldea du Joanesek txiki-txikitatit. Arazoak sortuko dizkio mundu ikuskerara berezi horrek, aldi berean besteei burutik pasatzen zaiena konprenitzen laguntzen dion arren. Baita aitzak hala eskatuta, ospitale psikiatriko batera eramango dutenean ere.

Amak bakarrik ulertuko du bere seme bakar eta berezianaren baitan dagoen itxaropena. **I**

Euskadiko Elkarte Laboral Taldeak 25 urte bete ditu

Hogeita bost urte bete dira 1982an Euskadiko Elkarte Laboral Taldea martxan jarri zenetik. Urte horietan egin duten guztia gogoratzeko eta urteurrena ospatzeko asmoz aurtengandik egin dituzten Batzar Nagusiaren eta Ekitaldi Institutuzionalaren berri eman dute, gaztelaniaz eta euskaraz, *ASLE 25 urte* liburuan. Kontu emateak eta helburuak bete osteko balorazioa ere azaltzen da argitalpenean.

Ekitaldien argazki ugari daude jasota, eta gainera *Argazki bat, hitz bat. 25 urte irudietan* CDa ere eskaini dute. **I**

ASLE: 25 urte

Batzuen artean

ASLE

44 orrialde + CDa



ASEL LUZARRAGA

«Mozorroa bizirauten laguntzen digun tresna da, baina...»

Xarma asko al du mozorroak?

Guztiok bizi gara mozorro baten atzean, bizirauten laguntzen digun tresna da. Baina mozorroa gure benetako izaera kanporatzeko oztupoa ere bada, geure burua onartzen ez dugun seinale. Nobelan, topikoak desmitifikatzeko bete-betean sartu naiz haietan, batez ere zein barregarriak diren erakusteko. Errealitatea sinplifikatzeko tresna arriskutsua da topikoa.

Thailandian kokaturik dago idazlana. Arrazoiak?

Exotismoa eskaintzeaz gain, ustelkeriaz gainezka bizi den herria da Thailandia, oso egokia nobelana agertzen diren korapiloak sortzeko. Barregarria da errege familia jainkoaren hurrengoa den gizarte batean, eta beraz gauza batzuk kritikaezinak eta ukiezinak diren sistema batean, zeinen harro dauden bertako biztanleak demokrazia eta askatasuna daukatelakoan, inguruko herriak gutxiesten dituzten bitartean. Ez dira konturatzen dolarraren, turismoaren eta ustelkeriaren mesedetan antolatutako herri batean bizi direla.

Euskaldun nahiko bitxi bat hartu duzu protagonista-tzat. Halere, emakumezkoak dira nortasun handiena erakusten dutenak, ez da hala?

Bai, beraiek dira benetako protagonistak. Horien mailan kokatzen den bakarra Reinaldo homosexuala da, gizonezko emeena. Uste dut psikologia emeak mundu askeagoa sortzen duela, batez ere aurreiritzietatik eta bere buruari ezarritako kateetatik askatzen denean. Literatura omenaldi txikiak egiteko baliatzen dut beti. Honetan, lagun eta idazle homosexuali egiten diet omenalditxo hori.



egileari galdezka

Euskaldun lodi batek Thailandian bizitakoa

Bere gelan daukan ordenagailuaren aurretik komune-koak egiteko baino altxatzen ez den

gazte gizena da Zigor, Aseel Luzarragak idatzitako *Mozorroaren xarma* nobelako protagonista euskalduna. Etxekoekin ia harremanik ez du, eta kanpokoekin batere ez, ordenagailuaren bidez egiten dituen ezagunak bere laguntzat ez badi-tugu hartzen behintzat. Eta hain zuzen haietako bat izango da Zigorrek urteetako itxialdia bertan bera utzi eta Thailandiaraino joatearen arrazoia. Emakume gazte, eder eta azkarraren deiari erantzun dio, harekin zer edo zer lortzeko esperantzaz. Ez dakiena da, emakume hori Thailandiako Barne Ministroaren emaztea dela, eta asmo ezkutu batzuk betetzeko laguntzat nahi duela. Dena den, Thailandia ezagutzeko aukera du euskaldunak, Tawiederraren eskutik. Baina



Mozorroaren xarma

Aseel Luzarraga

EREIN

188 orrialde

15 euro

hamaika trantze pasa beharko ditu bidaiari, narkotrafikoarekin zerkusia dutenak tartean. Nolanahi ere, bidai horri esker ezagutuko ditu trafikoa zuzentzetik narkotrafiko operazio handi baten atzetik ekitera iritsi den Pam polizia-gida turistikoa; Dasha errusiar neskatila eta haren gurasoak; Reinaldo homosexual kubatarra; eta beste pertsonaia interesgarriak. **■**